

Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

Domusantu Jai-Eguna

2009 Azaroak 1 (B urtea)

Patxi Otamendi

Apokalipsia 7, 2-4. 9-14

1 Joan 3, 1-3

Markos 5, 1-12a

- Zenbait pentsalari utopikoek Jesusen programa honen zorrotasun etikoa aitortu izan dute: kristau barrutikoak batzuk (Tolstoi), baita beste hainbat ez-kristauak (Gandhi). Zenbaiten ustez oso zaila da testu honetan iragarritakoa betetzea, sakonegia delako. Ildo honetan, gizatasunaz ikuspegi ezkorra dutenek pentsa dezakete programa honen argitasunak gure iluntasuna agerian uzten duela.
- Erradikaltasun bidea ote da Jesusek Zorion Deietan azaltzen diguna? Gerora kristautasunak epeldutako eskakizunak ote dira? Lukasen bertsioan “behartsuak” gorai patzen dira, eta Mateorenean “espirituzko behartsuak”. Gainera Lukasek batzuen zoriona aldarrikatu ondoren, besteen jarrera madarikatu egiten du.
Dena den aldaketa iragartzen duen Aldarrikapen hau, lehenik eta behin, promesa da: itxaropen eta ongizate promesa. Hain zuzen, jarraitzaileei azaltzen zaie Erreinuak zenbateko onurak dakartzkien. Jainkoaren nahia interpretatuz Jesusek zabaltzen du Jainkoaren gogoak guk zoriontasuna eskuratzea dela. Jainkoa batez ere nahigabe handian dauden aldeko dela. Testamentu Zaharrean Jahveh Israel herriaren aldekoa zela esaten zen. Orain zorionik ez dutenen aldeko bezala da aurkeztua.
- Mintzaldi hau Jainkoak dohainik emango duenaren iragarpena da. Errabino batzuek irakatsia zuten Israel osoak egun batez Torah legea beteko balu, Mesiasen etorrera abian jarriko litzatekeela. Baina Zorion Deiak ez dira lortuko soilik jarraitzaileen zorrotasunagatik; Jainkoak berak luzatuko baitio gizateriari ongizatea. Hortaz, mintzaldia batez ere “iragarpena” da, (nahiz eta Jainkoak horrelako hautua hartzen badu, bere leialak bide beretik egin beharra argi geratzen den). Esaldien aditzek geroaldian daude, eta zer eskuratuko denaren azalpena aurreratzen dute (Jainkoaren seme-alaba izatea, etsipena gainditzea, goiko erreinua lortzea...).
- Beraz, Jesus ez da hemen gure perfekzio ideala eskatzen ari, garai hartako greziar filosofoen antzera. Baina, bestalde, jendeari zuzendutako mezuak jarrera etikoa eskatzen du.
- Aldarrikapen hau ez da soilik mintzaldi garrantzitsu bat; baita Jesus buruzko aurkezpena. Bere lehen sendaketa, mirari eta sinagogetako irakaspenen atzetik dator. Ordurako gauzatu dituenak aurreratzen dute iragartzen ari dena sinesgarri dela. Kristau elkarreentzat eszena honetako Jesus (mendi gainean zutik, jendea behean entzuten) Jainkoaren gogoak hurbiltzen duen benetako Mesias da. Mintzo den hau itxaroten zen Mesiasen antzeko ekinaldiak egiten aritu izan da, eta jendearengan itxaropena piztu du. Batzuei erakargarri egingo zaie zein espresibide argi eta sotilak darabilzkie. Agian zailago aurkituko dute onartzea irakasten duena bere egin eta egikaritzen ari dela.
- Eta aurreratzen da ordurainoko lege, kode moralak eta profetek eskatutakoa beteko dela. Era zabalean, gainera. Horrek esan nahi du Jainkoak bere egiten dituela gizateriaren ahalegin eta nahigabeak. Mendeetan zehar gizarteak eta pertsonak emandako urratsak ez direla hutsean geratuko